SAN PAULO

San Paulo Tarson jaio zen, egungo Turkian. Gaztetan, kristauak jazarri zituen, gertakari berezi baten ondorioz kristau bihurtu zen arte.

Bibliako kontakizun batean azaltzen da nola gertatu zen aldaketa. Bidaia batean, zeruko argi batek itsutu egin zuen, Jesusek hauxe galdetzen ziola: «Zergatik zabiltza nire atzetik?». Orduan, zalditik erori zen. Ananiasek eskuak gainean jarri, eta San Paulok ikusmena berreskuratu zuen.

Ordutik aurrera bidaia asko egin zituen, Ebanjelioa iragartzeko.

Galderak erantzun:

Zergatik jazartzen zieten kristauei erromatar enperadoreek? Esan (E) egia ala (G) gezurra diren.

a) Kristauek ez zutelako Erromatarren Jainkoengan sinesten.

b) Nahi zutelako.

c) Haientzako dibertigarria zelako.

Nola bihurtu zen Paulo Jesusen jarraitzaile?

a) Juduekin haserretu zen eta Jesusen jarraitzaile bihurtu zen.

b) Kristaua izan nahiago zuen.

c) Argi itsugarri batek lurrera bota zuen eta ahots batek hitz egin zion. Jesus zela jabetu zuen.